# Xedapen Orokorrak

## KULTURA SAILA

### Zk-7211

289/2002 DEKRETUA, 2002ko abenduaren 10ekoa, Euskal Kirol Federazioen Batasunari buruzkoa.

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak Euskal Kirol Federazioen Batasunaren sorrera aurreikusten du III. Tituluaren VI. Kapituluan. Arau horretako xedapenen arabera, Euskal Kirol Federazioen Batasuna elkarte-izaera eta nortasun juridikoa duen entitatea da eta bere helburua Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioak hobetzeko eta garatzeko oinarri komunak bilatzea, beren kirol-helburuak babestea eta hobeto betetzea eta kirol-federazioen administrazio-egitura edo laguntza teknikoa emateko egitura komunak ezartzea izango da. Horretaz gain, Legearen arabera, aholkularitza-eginkizunak izango ditu kirol-administrazioan, eta euskal kirol-federazioak eta lurraldeetako kirol-federazioak ordezkatuko ditu.

Legeak ez du Euskal Kirol Federazioen Batasuna sortzen, baina sortzeko aukera irekitzen du, betiere, euskal kirol federazioek eskaria egiten badute. Euskadiko Kirolaren Legearen 38. artikuluaren arabera, legeak berak, hori garatzen duten xedapenek eta bere organoek balio osoz onartutako estatutu eta araudiek osatuko dute entitate horren araubide juridikoa «eratze, inskribatze, iraungitze, antolatze eta jarduteari dagokionez».

Federazioek sortuko duten entitateak elkarte-izaera duenez, Administrazioak uste du bere zeregin araugilea gai horiei buruzko manuak garatzera mugatu behar dela, ezinbestekoa baita entitatea martxan jartzeko eta esleitu zaizkion lege-manuak beteko direla bermatzeko.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko abenduaren 10ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Euskal kirol federaziek eratutako entitateari, Euskal Kirol Federazioen Batasunari, administrazio-onespena emateko behar diren alderdiak zehaztea da Dekretu honen helburua, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-7211

DECRETO 289/2002, de 10 de diciembre, de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

La Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, contempla en el Capítulo VI, del Título III, la creación de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas. Con arreglo a las disposiciones contenidas en dicha norma, la Unión de Federaciones Deportivas Vascas se configura como una entidad de base asociativa y con personalidad jurídica que tiene por objeto la búsqueda de bases comunes para la mejora y el desarrollo de las federaciones deportivas vascas, la defensa y mejor cumplimiento de sus fines deportivos y el establecimiento de comunes estructuras administrativas o de asistencia técnica. Asimismo, la Ley le encomienda una función asesora de la Administración deportiva y una función representativa del conjunto de las federaciones deportivas vascas y territoriales.

De la lectura de la citada Ley se desprende que la misma no crea directamente la Unión de Federaciones Deportivas Vascas sino que únicamente contempla su posible creación, a instancia de las federaciones deportivas vascas. Conforme al artículo 38 de la citada Ley del Deporte del País Vasco, el régimen jurídico de esta entidad relativo «… a la constitución, inscripción, extinción, organización y funcionamiento…», vendrá configurado por los mandatos de la propia Ley y, las disposiciones de desarrollo, y los estatutos y reglamentos válidamente adoptados por sus órganos.

Habida cuenta del carácter asociativo de la Entidad que han de crear las Federaciones llamadas a ello, la Administración considera que su labor reglamentaria se ha de limitar a desarrollar los preceptos relativos a dichas cuestiones, indispensables para dar cauce a su puesta en marcha, y garantizar el cumplimiento de los mandatos legales que le vienen asignados.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, de acuerdo a la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el día 10 de diciembre de 2002,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto del presente Decreto el establecimiento de los extremos que permitan el reconocimiento administrativo de la entidad constituida por las Federaciones Deportivas Vascas, como Unión de Federaciones Depor-

14/1998 Legearen 36. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako.

*2. artikulua.–* Definizioak eta zereginak

1.– Euskadiko Kirol Federazioen Batasuna elkarteizaeradun entitate pribatua izango da, nortasun juridikoa izango du eta, gutxienez, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 36. artikuluan zehazten diren eginkizunak izango ditu.

2.– Zeregin horiek berariaz agertuko dira estatutuetan, nahiz eta horrek ez duen baztertzen beste egiteko batzuk ere bereganatzeko aukera. Estatutuetan finkatzen diren zereginak ezin dira bateraezinak izan Euskadiko Kirol Federazioen Batasunari legez esleitutakoekin, ezta Euskadiko Kirolaren Legearen eta, oro har, ordenamendu juridikoaren edukiarekin ere.

3.– Euskadiko Kirol Federazioen Batasunaren zereginek errespetatu egingo dituzte euskal kirol federazio guztien eskumenak.

*3. artikulua.–* Jarduera-eremua

Euskal Kirol Federazioen Batasunak Euskal Autonomia Erkidegoan jardungo du. Kanpoan ere defendatu ahal izango ditu bere helburuak eta bere zereginak bete baina, betiere, aplikagarri diren lege edo administrazio mugak errespetatuta.

*4. artikulua.–* Osaera eta eraketa.

Kirol Erakundeen Erregistroan dauden euskal kirol federazioen %60ak, gutxienez, osatu behar du Euskal Kirol Federazioaren Batasuna.

Onartua izan dadin, entitatea sustatzen duten euskal kirol federazioek eskritura publikoan jaso behar dute Euskadiko Kirol Federazioen Batasuna eratzeko borondatea. Eskritura hori, entitatearen estatutuekin batera, eratze-akta izango da.

Eratzeko ekitaldian bertan, talde bat izendatuko da entitatea kudeatzeko. Talde hori hiru pertsonak osatuko dute gutxienez, eta, entitatea ordezkatzeaz gain, eskumena izango dute entitatearen onespena lortzeko eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistroan sartzeko behar diren egintzak gauzatzeko.

Talde kudeatzaile horrek entitatearen zuzendaritzako lanak hartuko ditu bere gain, harik eta, behin entitatea onartu eta inskribatu ondoren, Euskal Kirol Federazioen Batasuneko organo eskudunak gobernu-organoen kideak estatutuen arabera izendatzen dituen arte. Hori guztia egiteko, bi hilabeteko epea egongo da, entitatea onartu dela jakinarazten den egunetik aurrera.

tivas Vascas a los efectos que prevé el artículo 36 de la Ley 14/1998, de 11 de junio del Deporte del País Vasco.

*Artículo 2.–* Definición y funciones.

1.– La Unión de Federaciones Deportivas Vascas será la entidad privada de base asociativa, con personalidad jurídica, que acometerá al menos, las funciones que se determinan en el artículo 36 de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco le asigna.

2.– Tales funciones deberán aparecer expresamente señalados en los Estatutos de la entidad, y no excluyen el ejercicio de otras. Cuantos otros objetivos puedan contemplarse estatutariamente no podrán ser incompatibles con los legalmente atribuidos a la Unión de Federaciones Deportivas del País Vasco, con los contenidos de la propia Ley del Deporte del País Vasco, y con el ordenamiento jurídico en general.

3.– Las funciones a desarrollar por la Unión de Federaciones Deportivas Vascas deben entenderse, en todo caso, sin perjuicio de las competencias propias de cada federación deportiva vasca.

*Artículo 3.–* Ámbito de actuación.

El ámbito de actuación de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas será el correspondiente a la Comunidad Autónoma del País Vasco si bien, podrá defender sus objetivos y desarrollar sus funciones en el exterior con respeto a las limitaciones legales o administrativas que resulten de aplicación.

*Artículo 4.–* Composición y constitución.

La Unión de Federaciones Deportivas Vascas tendrá que estar integrada, al menos, por el 60% de las federaciones deportivas vascas inscritas en el Registro de Entidades Deportivas.

Para su reconocimiento como tal, las federaciones deportivas vascas que la promuevan deberán elevar a escritura pública su voluntad de constituir la Unión de Federaciones Deportivas Vascas como acta constitutiva junto con los Estatutos de la misma.

En el mismo acto constitutivo, deberá nombrarse un equipo gestor de la Entidad en constitución integrado por un mínimo de tres personas a quienes se les facultará para ostentar la representación y acometer las actuaciones necesarias para lograr el reconocimiento e inscripción de la Entidad en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

Este equipo gestor, asumirá las funciones directivas de la Entidad hasta que, una vez reconocida e inscrita, el órgano competente de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas elegirá los miembros de los órganos de gobierno de la Entidad conforme a sus propios Estatutos. Estos acuerdos deberán realizarse en el plazo máximo de dos meses a partir de la fecha de notificación del acto de reconocimiento de la Entidad.

*5. artikulua.*– Administrazioaren onespena.

1.– Euskal Kirol Federazioen Batasunari onespena emateko, nahitaezkoa izango da legez ezarritako eskakizunak betetzea. Administrazioaren onespena izatea ezinbestekoa izango da «Euskal Kirol Federazioen Batasuna» izena erabiltzeko eta legez esleituta dituen zereginak gauzatzeko.

2.– Eusko Jaurlaritzako Gazteria zuzendariari dagokio entitatea onartzea legez ezarritako ondorioetarako. Onespena emateko, organo horrek entitateak eskakizunak betetzen dituela egiaztatuko du, besterik ez.

3.– Organo eskudunak hiru hilabete izango ditu erabakia hartzeko eta jakinarazteko, eskariari sarrera eman zaion egunetik hasita. Organo horrek epea eten edo luza dezake, administrazio-prozedura erkidean xedatutakoaren arabera.

4.– Onespena emateko egintzan, entitatea Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzeko agindua emango da, baita egintza bera eta Euskal Kirol Federazioen Batasunaren estatutuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzekoa ere, administrazio-prozedurari buruzko arauen arabera egin beharreko gainerako aipamenak ere egingo direlarik.

5.– Aldaketak egiteko, administrazio-baimena beharko da, eta prozedura berberari jarraituko zaio. Erabakiok entitateko kideengan izan dezaketen eragina gorabehera, aldaketak bakarrik aplikatu ahal izango dira administrazio-baimenaren jakinarazpena egin ondoren.

*6. artikulua.*– Estatutuak

1.– Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 38. artikuluari jarraituz, Euskal Kirol Federazioen Estatutuek printzipio demokratiko eta ordezkapenezkoak beteko dituzte barne-egitura eta funtzionamendua arautzeko eta, gainera, kideak aukeratzeko orduan, bazkide diren kirol-federazio guztien sufragio libre, berdin eta sekretua erabiliko da.

2.– Euskal Kirol Federazioen Batasunaren estatutuek honako hauek arautuko dituzte gutxienez:

a) Izena, helburua eta zereginak.
b) Egoitza soziala.
c) Jarduera-eremua.
d) Kide-motak.
e) Kide egiteko eskakizunak eta kidetza galtzeko arrazoiak.
f) Kideen eskubideak eta betebeharrak.
g) Egitura organikoa eta funtzionamendu-araubidea.

*Artículo 5.*– Reconocimiento administrativo.

1.– El reconocimiento de la correspondiente entidad como Unión de Federaciones Deportivas Vascas quedará supeditado al cumplimiento de los requisitos legalmente establecidos. Sólo el reconocimiento administrativo dará derecho a la correspondiente entidad a utilizar su denominación como «Unión de Federaciones Deportivas Vascas» y a ejercer las funciones que legalmente le vienen atribuidas a esta Entidad.

2.– Corresponde al Director de Deportes del Gobierno Vasco el reconocimiento de la Entidad a los efectos legalmente establecidos. Para el reconocimiento de la Entidad este órgano se limitará a verificar el cumplimiento de los requisitos establecidos.

3.– El órgano competente dispondrá de un plazo de tres meses para resolver y notificar su resolución, a contar desde el día en el que la solicitud haya tenido entrada. Este órgano podrá suspender o ampliar tal plazo conforme a lo dispuesto en las disposiciones de procedimiento administrativo común.

4.– El acto de reconocimiento, sin perjuicio de otras menciones que procedan conforme a la normativa sobre procedimiento administrativo, incorporará el mandato de inscripción en el Registro de Entidades Deportivas, y la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de tal acto y de los Estatutos de la entidad reconocida como Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

5.– Igual procedimiento se aplicará a las modificaciones estatutarias, que deberán ser autorizadas administrativamente. Sin perjuicio de los efectos que estos acuerdos pudieran surtir entre los miembros de la Entidad, las modificaciones acordadas solo podrán ser aplicadas una vez notificada la autorización administrativa de las mismas.

*Artículo 6.*– Estatutos.

1.– Conforme a lo dispuesto en el artículo 38 de la Ley 14/1998, de 11 de junio del Deporte del País Vasco, los Estatutos de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas regularán su estructura interna y funcionamiento de acuerdo con principios democráticos y representativos y establecerán la elección de todos sus miembros mediante sufragio libre, igual y secreto de todas las federaciones deportivas asociadas.

2.– Los estatutos de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas deberán regular, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Denominación, objeto y funciones.
b) Domicilio social.
c) Ámbito de actuación.
d) Clases de miembros.
e) Adquisición y pérdida de la condición de miembro.
f) Derechos y obligaciones de los miembros.
g) Estructura orgánica y régimen de funcionamiento.

h) Batasuneko organoetako kideak aukeratzeko eta karguak uzteko sistema.

i) Ekonomia eta ondare araubidea.

j) Dokumentu-araubidea.

k) Diziplina-araubidea.

l) Sozietatearen erabakien aurka egiteko araubidea.

m) Estatutuen eta araudien aldaketak.

n) Sozietatea desegiteko eta likidazioa egiteko araubidea.

ñ) Arbitraje, bitartekaritza eta adiskidetze araubidea.

*7. artikulua.*– Araubide juridikoa.

Hauek dira Euskal Kirol Federazioen Batasunaren eraentzan beteko diren xedapenak: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea, dekretu hau eta berori garatuko duten xedapenak, sozietatearen estatutuak eta araudiak eta sozietateko organoek hartutako erabaki baliodunak.

*8. artikulua.*– Kideak.

1.– Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistroan izena emanda dauden euskal kirol federazioak izan daitezke Euskal Kirol Federazioen Batasuneko kide, betiere, nahi badute eta berariaz adierazten badute kide izateko borondatea. Borondate hori Batzar Orokorrak adierazi behar du erabaki baten bitartez eta, ondoren, pertsona bat gaitu behar du entitatea eratzeko prozesuan parte har dezan.

2.– Eratze-prozesua amaituta, euskal kirol federazioren batek Euskal Kirol Federazioen Batasunean sartu nahi badu, batzar orokorrak kide izateko borondatea adierazi eta sartzeko eskaria egin behar du, betiere, Euskal Kirol Federazioen Batasuneko estatutuetan eta araudietan agertzen diren eskakizunak betez eta bertan adierazitako prozedurari jarraituz. Ezin izango da euskal kirol federaziorik baztertu baldin eta Kirol Erakundeen Erregistroan badago eta estatutuetako eta araudietako baldintzak betetzen baditu.

3.– Estatutu eta araudietako eskakizunetan ezin da diskriminaziorik egin euskal kirol federazioen artean. Hala ere, hainbat mekanismo ezar daitezke federazio bazkideek erabakiak hartzeko orduan izango duten ordezkaritza orekatzeko, betiere, arrazoi orokor eta objektiboen arabera.

4.– Eskubide osoko kideez gain, Euskal Kirol Federazioen Batasunak kide laguntzaileak ere izan ditzake. Kide horiek Euskal Kirol Federazioen Batasunaren helburuak betetzen lagun dezaketen entitateen artean aukeratuko dira eta hitza izango dute, baina botorik ez.

5.– Euskal kirol federazioek Euskal Kirol Federazioen Batasuna utz dezakete baldin eta batzar orokorrak horixe erabakitzen badu eta entitateari eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistroari horren berri ematen bazaie era fede-emailean.

h) Sistema de elección y cese de los miembros de los órganos de la Unión.

i) Régimen económico y patrimonial.

j) Régimen documental.

k) Régimen disciplinario.

l) Régimen de impugnación de acuerdos sociales.

m) Modificación de estatutos y reglamentos.

n) Régimen de disolución y liquidación.

ñ) Régimen de arbitraje, mediación y conciliación.

*Artículo 7.*– Régimen jurídico.

La Unión de Federaciones Deportivas Vascas se regirá por las normas de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, por el presente Decreto y disposiciones que la desarrollen, por sus estatutos y reglamentos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos.

*Artículo 8.*– Miembros.

1.– Podrán ser miembros de pleno derecho de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas las Federaciones Deportivas Vascas inscritas como tales en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco que así lo deseen y manifiesten expresamente tal voluntad mediante acuerdo de su Asamblea General, habilitando a una persona para que participe en el proceso constitutivo de la Entidad.

2.– Una vez cerrado el proceso constitutivo las federaciones deportivas vascas que deseen incorporarse a la Unión de Federaciones Vascas, deberán acordar a través de sus Asambleas Generales dicha voluntad asociativa y solicitar formalmente su admisión con arreglo a los requisitos y procedimiento establecidos en los estatutos y reglamentos de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas. No se podrá denegar la admisión a una federación deportiva vasca inscrita en el Registro de Entidades Deportivas que cumpla con los citados requisitos estatutarios y reglamentarios.

3.– Los requisitos estatutarios y reglamentarios no podrán significar un trato discriminatorio entre las federaciones deportivas vascas. Ello no obstante, podrán establecerse mecanismos que en base a razones generales y objetivas permitan modular la representatividad de las Federaciones asociadas en la toma de decisiones.

4.– Junto a los miembros de pleno derecho, la Unión de Federaciones Deportivas Vascas podrá admitir como miembros colaboradores, sin derecho a voto, a cualesquiera entidades que puedan coadyuvar en el cumplimiento de los objetivos sociales de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

5.– Las federaciones deportivas vascas podrán dejar de formar parte de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas mediante acuerdo de la correspondiente Asamblea General y comunicación fehaciente a la Unión y al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

*9. artikulua.–* Baliogabetzea

1.– Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendariak eskumena du Euskal Kirol Federazioen Batasunari emandako onespena baliogabetzeko baldin eta dekretu honetako 4. artikuluan aipatzen den gutxieneko kide-kopurua betetzen ez bada edo sozietateak legez esleitu zaizkion zereginak betetzen ez baditu.

2.– Onespena baliogabetzeko, nahitaezkoa da administrazio-espediente bat bideratzea. Prozesu horretan, entitatearen eskubide guztiak bermatuko dira eta onespena baliogabetzea eragin duten ez-betetzeak zehaztu eta arrazoituko dira.

3.– Administrazioak onespena baliogabetuz gero:

a) Kirol Erakundeen Erregistroko inskripzioa ezabatu egingo da ofizioz.

b) Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legean zehazten diren eskubideen eta zereginen titulartasuna galduko da, bereziki Euskal Kirol Federazioen Batasuna izena erabiltzeko eskubidearena.

c) Euskal Kirol Federazioen Batasuna araubide orokorreko elkarte bihurtuko da, baldin eta horretarako eskakizunak betetzen baditu.

4.– Baliogabetzeko egintza Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

*10. artikulua.–* Administrazioarekiko lankidetza.

Euskal Kirol Federazioen Batasunak Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan burutu ahal izango ditu bere zereginak. Kasu horretan, erakunde biek lankidetza hitzarmenak sinatuko dituzte, helburuak, programak, aurrekontuak eta emandako zereginekin zuzeneko lotura duten gainerako alderdiak finkatzeko. Lankidetza-esparru hori gorabehera, Euskal Kirol Federazioen Batasunak antzeko beste hitzarmen batzuk ere sina ditzake, bai Eusko Jaurlaritzarekin, bai beste edozein erakunderekin, bere gainerako zereginak burutzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

*Bakarra.–* Kirol Erakundeen Erregistroa

Kirol Erakundeen Erregistroa berrantolatzeko eta funtzionamendu berria finkatzeko xedapenak ematen ez diren bitartean, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren onespena eta estatutuak Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroan inskribatuko dira (erregistro hori apirilaren 3ko 94/1990 Dekretuaren bitartez sortu zen). Inskripzioa egiteko, erregistroaren organo arduradunak beharrezko antolaketa-neurriak hartuko ditu.

*Artículo 9.–* Revocación.

1.– Al Director de Deportes del Gobierno Vasco competerá, en su caso, revocar el reconocimiento de la entidad como Unión de Federaciones Deportivas Vascas cuando esta Entidad deje de cumplir el requisito de composición mínima establecido en el artículo 4 del presente Decreto o cuando deje de atender las funciones legalmente atribuidas.

2.– La revocación del reconocimiento exigirá la instrucción de un expediente administrativo al efecto, que, garantizando los derechos de la Entidad, determine y fundamente el incumplimiento que determine la revocación del reconocimiento.

3.– La revocación administrativa comportará:

a) La cancelación de oficio de su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas.

b) La pérdida de la titularidad de los derechos y funciones encomendados por la Ley 14/1998, del Deporte del País Vasco, especialmente del derecho a utilizar la denominación de Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

c) La transformación de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas en una asociación de régimen general, cuando reuniese los requisitos para ello.

4.– El acto de revocación deberá publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 10.–* Colaboración con la Administración.

La Unión de Federaciones Deportivas Vascas podrá desarrollar las funciones que legalmente le vienen asignadas en colaboración con el Gobierno Vasco. A tal efecto, ambas entidades suscribirán entre sí los pertinentes convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones encomendadas. Este marco de colaboración no excluye la conclusión de otros acuerdos de similar naturaleza para el desarrollo de las demás funciones que pueda desarrollar la Unión de Federaciones Vascas, con el Gobierno Vasco o cualquier otra Institución.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

*Única.–* Registro de Entidades Deportivas.

En tanto no se dicten las disposiciones pertinentes para la nueva organización y funcionamiento del Registro de Entidades Deportivas, el reconocimiento y Estatutos de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas se inscribirán en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas, establecido por Decreto 94/1990, de 3 de abril, a cuyo efecto por el órgano responsable del mismo se adoptarán las medidas organizativas adecuadas para verificar tal inscripción.

AZKEN XEDAPENAK

*Bakarra.*– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko abenduaren 10ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIONES FINALES

*Única.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de diciembre de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-7212

EBAZPENA, 2002ko abenduaren 2koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan eta bere erakunde autonomiadunetan aritzeko diren lan-kontratuko langile finkoen postuak —Kultura Sailekoak, hain zuzen— betetzeko hautaketa prozesuko behin betiko zerrendak, non agertuko diren gainditu duten izangaiak eta plaza bakoitzean hautatuak izan direnak, aditzera ematen duena.

2002ko apirilaren 25eko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan eta bere Erakunde Autonomiadunetan aritzeko diren lan-kontratuko langile finkoen postuak —Kultura Sailekoak, hain zuzen— betetzeko hautaketa-prozesurako deia egin zen. Agindu hori 2002ko maiatzaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Hautaketa-prozesu horretan, behin-behineko zerrendak, non agertzen ziren gainditu duten izangaiak eta plaza bakoitzean hautatuak izan direnak, argitaratu ziren; eta horien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitu egin da, inolako erreklamaziorik jaso gabe.

Epaimahaiak behin betiko zerrendak, non agertzen diren gainditu duten izangaiak eta plaza bakoitzean hautatuak izan direnak, onartu egin ditu, deialdiaren oinarrien 8.2. paragrafoak ezartzen duen legez.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-7212

RESOLUCIÓN de 2 de diciembre de 2002, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se hacen públicas las relaciones definitivas de aspirantes aprobados y de aspirantes seleccionados para cada una de las plazas correspondientes al proceso selectivo para la provisión de plazas de personal laboral fijo al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, adscritas al Departamento de Cultura.

Mediante Orden de 25 de abril de 2002, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco de 23 de mayo de 2002, se convocó proceso selectivo para la provisión de plazas de personal laboral fijo al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, adscritas al Departamento de Cultura.

En este proceso selectivo, se publicaron las relaciones provisionales de aspirantes aprobados y de aspirantes seleccionados y ha transcurrido el plazo de interposición de reclamaciones contra las mismas, sin que se haya presentado reclamación alguna.

El tribunal calificador ha aprobado las relaciones definitivas de aspirantes aprobados y de aspirantes seleccionados, relaciones que este Instituto ha de proceder a publicar, en cumplimiento del apartado 8.2. de las bases de convocatoria.